

ETXE INGURUA

Txoro ibilli oi zaigu eguraldia: gaur ipar, biar egoi; gaur euri, biar eguzki. Konta ezin ala esakun ditugu euskaldunok eguraldiaren aldakortasuna dala-ta: «Amilena, soiñeko zaarren bila dabilena»; «Arrats gorri, eguraldi; gotiz gorri, eurilari»; «Egoaren ondotik, euri»; «Eguzki txuri, laster euri». Ez dira esaerok mami gabekoak.

Doiñu: «Konta-kantari deuda...».
(Boga, boga, 113 orr.) .

Gauean izan dugu zerua malkotan,
maiatz euria eder ornen da egitan.
Goiztik joan gura dut ikusten giroa,
ta ater baldin bada, nik lanera asmoa.

Lur billoizean dabil zeruaren dirdai,
pozaren irriñoa edaturik nunnai.
Eta lurrak narama gaur ere kanpora,
egunak kentzen didan izerdi arlorra.

Baserritar bizitza zaila da, ta eder,
itzez ez, egiñetan ez nadin ni alper.
Ene etxea zaintzea neroni dagokit,
baserritar bikaiñen orretzek dirudit.

Nere aitak atxiki zidan barne-sua,
ni gogoz bizitzeko lanera lotua:
aren oroitz goxoa aintzaldtu dezadan,
ura maiz gogoraziz erstura latzetan.

Idi gorri, bei zuri lanerako gertu,
ez dute alper-gaitza iñoiz ezagutu.
Iturritik ura, ta zer alperkeritik?
Gaitza ixurtzen zaigu loiaren begitik.

Ez dut amets-zororik egundo irrikatu,
iñoiz sortu ba dira gaiña diet moztu.
Nere soro lanetik asko dut ikasi,
zabartzen ba naiz arin belar txarrak azi.

Jausi zaizkidan ormak kontuz ditut jaso,
arriak landu ditut, eta burnirik asko.
Edu ontako lanak ez al nau gotortu?
Premiak geienetan indar-azten zaitu.

Auzoak eztu iñolaz ni txartzat jotzerik,
al izanik beti dut laguntza emanik.
Ez dut izan samiñik, ez auzi-lipizta,
gozogo da bizia elkar lagunduta.

Lanak dirua dakar, eta zoriona,
baldin ba dagigu legezko zaiguna.
Zuurki begituz lagun ta ondasuneri,
etxaguntzak kezkarik ez damakit neri.

Gaingiro bizi naiz, bai, nere etxe aldean,
sendiaren poztasunak dakarren pakean.
Etxe inguru dutala pozarren biotza,
dabesdan irrintzika lanaren garaitza.